



# LAKUNTZA

2024ko otsaila. LAKUNTZAKO UDAL BULETINA [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus)



## PLAZARAKO ESTALPEAREN PROIEKTUA AUKE RATUA

Abenduko lehen asteburuan plazan estalpe finkoa jarri eta zein erabakitzeko herri galdeketa egin zen. 16 urtetik gorako lakuntzarrak zeuden bozka ematera deituta, guztira 1.079 herritar.

Estalpe berria egiteak 180.000 €ko aurrekontua dauka. Udalak dagoeneko tramatatu duen dirulaguntza 60.000 €koa izan daiteke. Diru laguntza jasoz gero udalak aurrera eginen luke estalpearren proiektuarekin eta kasu horretan, 2025eko udaberrirako egina egon beharko litzateke.

<b>Partehartzea</b>	%26,32	
<b>Bozka kopurua</b>	<b>BAI</b> %79,56	<b>EZ</b> %20,64
<b>Aukerak</b>	<b>A</b> %53,54	<b>B</b> %46,46

## SELECCIONADO EL PROYECTO DE LA CUEBIERTA PARA LA PLAZA

El primer fin de semana de diciembre se realizó una consulta popular sobre la instalación de una cubierta fija y en su caso elección de la propuesta. Estaban llamados a votar los lakuntzarras mayores de 16 años, un total de 1.079 personas.

La construcción de la nueva cubierta tiene un presupuesto de 180.000 €.

La subvención que ya ha tramitado el Ayuntamiento puede ascender a 60.000 €. En caso de recibir subvención el ayuntamiento seguiría adelante con el proyecto, que se financiaría con remanente de tesorería y debería estar ejecutado para la primavera de 2025.



# AUZOLANA

Udalak lan talde espezifikoa jarri du martxan auzolanaren antolaketa egiteko. 7 auzolan ezberdin egin dira uztailatik eta auzolanean lan ugari egin dira: eskolako eremuko hesiaren eraberritzea, "matadero"ko kanpoaldearen garbiketa, igerilekuko biltegi, taberna, sukalde eta estalitako terrazaren garbiketa sakona, zuhaitzen kimaketa, liburutegi berrira (udaletxeko ganboikoa) altzari eta materialen lekualdatzea, herriko kaleen eta arketa guztien garbiketa. Guztira 122 pertsonek hartu dute parte auzolanetan, bataz beste deitutakoen %50ak. Aurrerantzean auzolanek hileroko maiztasuna izango dute.

## Zer da auzolana?


Auzolana aspalditik datorren ohitura da eta bizilagunek euren denbora eta lanaren bidez modu komunitarioan herriari egiten dioten ekarpena da. Auzolanek, lan ugari egitea ahalbidetzeaz gain, herri identitatea mantentzen lagundu eta herrian bizi diren pertsonen arteko elkar ezagutza izateko aukera ere ematen dute. Auzolanean askotariko lanak egiten dira: kaleen mantentze-lanak eta garbiketak, zuhaitzen kimaketak, udal eraikuntza eta instalazioetan lan ezberdinak, festen prestaketa eta beste hainbeste. Helburua, modu komunitarioan espazio publikoen mantentze-lanak eta biziberritzelanak egitea da.

## Nola dago arautua?

18-50 urte bitartean Lakuntzan erroldatutako pertsonek daukate auzolanetan parte hartzeko derrigortasuna. Deialdia aste bete lehenago banatzen da eta zerrenda bukatu arte ez da berriz pertsona berbera deituko. Data aldaketa eskatu edo ordezko pertsona bidaltzeko aukera dago. Normalean larunbata goizetan egiten dira 9:00-13:00 ordutegian. Auzolanetara agertu ezean 50 €ko tasa kobraztuko da.

AUZOLANEAN EGITEKO PROPOSAMENIK DUZU? ZUK AUZOLANEAN LAN  
BEREZIREN BAT EGITEKO PREST ZAUDE? HALA BADA JARRI HARREMANETAN  
UDALAREKIN.

AUZOLAN GUZTIAK BANDO BIDEZ IRAGARTZEN DIRA,  
BORONDATEZ AUZOLANEAN PARTE HARTU NAHI BADU ONGI  
ETORRIA IZANGO DA.



ERREPİKATU DAITEKE!

Se ha conformado un grupo de trabajo específico para la organización del auzolan. Desde el pasado mes de julio se han hecho 7 auzolanes en el que se han realizado diferentes trabajos: reforma del vallado del recinto escolar, limpieza del exterior del "matadero", limpieza de diferentes estancias de la piscina municipal (almacén, bar, cocina y terraza cubierta), poda de árboles, traslado y montaje de mobiliario y materiales a la nueva biblioteca (desván del Ayuntamiento), limpieza de las calles y de todas las arquetas. En total han participado 122 personas, un 50% del total de convocados. Las auzolanes tendrán una frecuencia mensual.



### ¿Qué es el auzolan?

El auzolan (trabajo comunitario) es una costumbre antigua que en Lakuntza se ha mantenido en el tiempo y se trata de la aportación que realizan los y las vecinas al pueblo de forma comunitaria a través de su tiempo y trabajo. El auzolan, además de posibilitar la realización de numerosos trabajos, también permiten contribuir al mantenimiento de la identidad y arraigo al pueblo y al conocimiento mutuo entre las personas que viven en el pueblo. En Auzolan se realizan trabajos muy diversos: mantenimiento y limpieza de calles, podas de árboles, trabajos de mejora y mantenimiento de instalaciones municipales, preparación de fiestas y los que surjan.

### ¿Cómo está regulado?

- Las personas empadronadas en Lakuntza entre los 18 y los 50 años tienen obligación de participar en los auzolan.
- La convocatoria se entrega con una semana de antelación y no se volverá a convocar a la misma persona hasta finalizar la lista.
- Se puede solicitar el cambio de fecha o enviar persona sustituta.
- Normalmente se realizan los sábados por la mañana en horario de 9: 00-13:00.
- En caso de incomparecencia se cobrará una tasa de 50 €.

¿Tienes alguna propuesta para hacer auzolan?

¿Te gustaría realizar algún trabajo en especial? Si es así, contacta con el Ayuntamiento.

Todos los auzolanes también se anuncian mediante BANDO, por lo que toda aquella persona que quiera participar, conocer y realizar un trabajo comunitario será bienvenida. ¡Se puede repetir!



## GUARDETXEKO LANAK MARTXA ONEAN DOAZ



Guardetxea eraikitzeko lanak erritmo onean doaz aurrera. Nafarroako Gobernuak Erki Construcción Sostenible eta Ensambla Madera enpresei esleitu zien jarduera hori, eta elkarrekin lizitatu zuten proiektu horretarako, behin baino gehiagotan esleitu gabe geratu ondoren. Guztira 465.682 euroko importazioagatik, BEZA barne. Maiatzeko egina egotea aurreikusten da.

Eraikitako azalera 156 metro karratukoa da, eta portxe bat, jendeari arreta emateko bulego bat, komunak, basozainaren gela, erabilera anitzeko gela eta biltegia ditu. Aralar mendiaren kudeaketari eta mantentzeari lotutako gune gisa planteatzen da. Era berean, turismo-informazioko gunea kokatzea aurreikusten da.

Lurpean 120.000 litroko edukiera duen uraska bat egokitua eta soberan dagoen ura urlehortarrak babesteko putzu bat hornitzeko aprobetxatuko da. Iturri bat gertu badago ere, udan lehortzen da. Aralarko Elkarteak kudeatuko du Guardetxe berria, Sakanako eta Araitzeko 19 herrik osatzen duten ehun urtetik gorako erakundea, Aralarko 2.195 hektareako mendiaren aprobetxamendu eta erabilerez arduratzen dena.

Las obras de construcción de Guardetxe, avanzan a buen ritmo. El Gobierno de Navarra adjudicó esta actuación a las empresas Erki Construcción Sostenible y Ensambla Madera , que licitaron juntas para este proyecto después de quedar desierto en varias ocasiones, por una importación total de 465.682 euros , IVA incluido. Se prevé que las obras terminen en mayo.

La superficie construida es de 156 metros cuadrados con un porche, una oficina de atención al público, baños, cuarto de guardia, zona común y almacén. Se plantea como un espacio ligado a la gestión y mantenimiento del Monte Aralar. Asimismo, se prevé que se ubique el punto de información turística de la sierra.

En el subsuelo se ha habilitado un aljibe con una capacidad de 120.000 litros. El agua sobrante se aprovechará para abastecer una balsa para la protección de anfibios. Aunque hay una fuente cerca, se seca en verano. El nuevo Guardetxe será gestionada por la Unión de Aralar, entidad centenaria formada por 19 pueblos de Sakana y Araitz que gestiona y se beneficia de los aprovechamientos y usos del Monte de Aralar, un territorio de 2.195 hectáreas.

## HERRIA GARBI MANTENTZEKO DEIALDIA

Lakuntzako Udala oso arduratuta dago kaleetan, taberna ingurueta zigarrokinak eta orohar toki publikoetan biltzen den zikinkeriarekin. Denon ardura da gure espazio publikoak garbi mantentzea. Hartu ardura eta ez bota zaborrik lurrera. Aldi berean bizilagun guztiei dei egiten dio udalak bakoitzaren etxe inguruak garbi mantendu ditzan, garai batean egiten zen bezala. Keinu txiki askok handi egiten gaituelako.



El Ayuntamiento de Lakuntza está muy preocupado por la suciedad de papeles, plásticos y también de la cantidad de colillas depositadas en los espacios públicos y zonas de bares. Es responsabilidad de todas las personas mantener limpios nuestros espacios públicos. Responsabilízate y no tires basura al suelo. Al mismo tiempo hace un llamamiento para que los y las vecinas mantengan limpios los alrededores de sus casas, como se hacía antaño. Porque muchos pequeños gestos nos hacen grandes.



## PARKEA MARTXAN BILERA

Zer hobetuko zenuke parkean?

2012an auzolanean egin genuen bezala, orain ere parkean egin beharreko hobekuntza eta moldaketak auzolanean eta elkarrekin egin nahi ditugu.

Zer hobekuntza planteatzen dira? Tirolina berriaren instalakuntza, zonalde ez estrukturatuaren konponketa eta suertatu daitezkeen idea berriak.



MARTXOAK 1



18:00



PARKEA

¿Qué mejoraría en el parque? Al igual que hicimos en 2012 en auzolan con la iniciativa Parkea Martxan, queremos trabajar juntas en las futuras mejoras y adaptaciones que se prevén realizar. ¿Qué mejoras se plantean? Instalación de la nueva tirolina, reparación de la zona no estructurada y posibles nuevas ideas. La reunión tendrá lugar en el propio parque el viernes 1 de marzo a las 18:00.

## 2024KO AURREKONTUAK ONARTUAK

1.319.604 € ko diru sarrerak aurreikusten ditu udalak eta 1.291.419 €ko gastuak. 2023ko aurrekontuarekin alderatuz ez da gastu eta diru sarrera arruntetan aldaketa handirik aurreikusten. Berrikuntzei dagokionez hainbat gairi heldu nahi dio udalak:

- **Liburutegia:** irailean martxan jartzea aurreikusten da, horretarako liburuzain lanpostua sortuko da lehenik. Nafarroako Liburutegi Sarearekin hitzarmena sinatuko du eta modu honetan katalogoa berritzeko dirulaguntza eta sareak eskaintzen dituen hainbat zerbitzu ere jaso ahal izango ditu udalak. Aurrekontuetan liburuzainaren soldatu eta ekipamendua osatzeko 3.000 €ko partidak onartu dira.
- **Parkea martxan:** 2023an erositako tirolinaren instalakuntzarako 6.766,32 €ko partida onartu da. Tirolinaren kokapena eta parkean egin daitezkeen hobekuntzak zehazteko, herritarrei irekia izango den bilera deituko du udalak martxoaren 1erako arratsaldeko 18:00tan, bilera parkean bertan izango da.
- Kultur Etxeko tabernan, Gure Nahia jubilatuen egoitzan, **terrazara irteera emango dion ate berri bat egiteko** 6.000 €ko bideratuko dira.
- Abuztuko festetan **eszenatoki parea babesteko eta egingo den estalpe finkoaren osagarri bezala**, jarri eta kendu egingo den estalpea sortzeko 8.000 € aurreikusten ditu udalak.
- Udal bulegorako **fotokopiagailu berria** erosteko 3.500 €.
- **Igerilekuen lanen egokitzea** egiteko era 20.000 €ko inbertsioa aurreikusten da.
- **Plazako estalpe finkoaren proiektua** ordaintzeko 5.250 € bideratuko ditu udalak. Diru lagunza jasoz gero, eraikuntzaren kostua diruzaintzako gerakina eta dirulaguntzarekin ordainduko da.

El Ayuntamiento prevé ingresos de 1.319.604 € y gastos de 1.291.419 €. No se prevén grandes variaciones en los gastos e ingresos corrientes respecto al presupuesto de 2023. En cuanto a las novedades, el ayuntamiento quiere abordar varios temas:

- **Biblioteca:** se prevé la apertura para septiembre, para lo cual se creará en primer lugar un puesto de trabajo para la biblioteca. El Ayuntamiento suscribirá un convenio con la Red de Bibliotecas de Navarra para la renovación del catálogo y la prestación de diversos servicios. En los presupuestos se han aprobado la partida correspondiente al sueldo y otros 3.000 € para completar el equipamiento.
- **Parkea martxan:** para la instalación de la tirolina adquirida en 2023 se ha aprobado una partida de 6.766,32 €. Para determinar la ubicación de la tirolina y las posibles mejoras en el parque, el ayuntamiento convocará una reunión abierta a la ciudadanía para el 1 de marzo a las 18:00 horas en el propio parque.
- Se destinarán 6.000 € para la colocación de una nueva puerta que dé **salida a la terraza** desde el bar de Casa de Cultura, sede de Gure Nahia.
- Para proteger de las inclemencias meteorológicas el frente del escenario en las fiestas de agosto y **complementar la cubierta fija proyectada**, se ha habilitado una partida de 8.000 €.
- Partida de 3.500 € para la adquisición de una **nueva fotocopiadora** para la oficina municipal.
- Se prevé una inversión de 20.000 € para la **adecuación de las piscinas**.
- El Ayuntamiento destinará 5.250 € para la **redacción del proyecto de la cubierta** de la plaza. En caso de recibir subvención, el coste de construcción se abonará con remanente de tesorería y subvención.

## DIRU SARRERAK / INGRESOS

<b>Zuzeneko zergak</b> Impuestos directos	351.300,00 €
<b>Zeharkako zergak</b> Impuestos indirectos	50.000,00 €
<b>Tasa, prezio publiko eta beste batzuk</b> Tasa, precios públicos y otros	243.755,00 €
<b>Transferentzia arruntak</b> Transferencias corrientes	632.725,00 €
<b>Ondarea eta herri-lurretako aprobetxamenduak</b> Ingresos patrimoniales y aprovechamientos comunales	3.650,00 €
<b>Kapital transferentziak</b> Transferencias de capital	38.174,00 €
<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>1.319.604,00 €</b>

## GASTUAK / GASTOS

<b>Langileria gastuak</b> Gastos personal	587.738,64 €
<b>Zerbitzu eta funtzionamendu gastuak</b> Servicios y gastos de funcionamiento	328.940,00 €
<b>Finantza gastuak</b> Gastos financieros	21.565,00 €
<b>Pasibo finantzieroak</b> Pasivos financieros	68.620,00 €
<b>Transferentzia arruntak</b> Transferencias corrientes	228.039,24 €
<b>Inbertsio errealkak</b> Inversiones reales	56.516,32 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>1.291.419,20 €</b>

Aurrekontuak osorik [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) webgunean ikusgai  
 Presupuestos completos disponibles en [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus)


## KOMUNIKAZIO BIDEAK BERRITZEN

### WHATSAPP DIFUSIO TALDEA

Lakuntzako Udalak WhatsApp aplikazioaren mezularitza-zerbitzuaren bidez herritarrei informazioa zabaltzeko beste bide bat jarri du martxan. Zerbitzu berri honekin, arin, azkar eta kosturik gabe, hainbat informazio jaso ahal izango dira: komunikazioak, kultur programazioa, jarduerak eta bestelako intereseko udal informazioa.

## WhatsApp

Lakuntzako Udalaren komunikazio kanal berria



El Ayuntamiento de Lakuntza ha puesto en marcha una nueva vía de difusión de la información a la ciudadanía a través del servicio de mensajería de la aplicación WhatsApp. Con este nuevo servicio, de forma ágil, rápida y sin coste, los y las vecinas que lo deseen podrán recibir informaciones como comunicaciones, programación cultural, actividades, así como otro tipo de información municipal.



## LAKUNTZAILEOK

[www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus)




## UDAL BULETINA

Udalak egiten duenaren berri emateko komunikazio bide berriak jarriko ditu martxan, tartean paperean etxe guzietara iritsiko den buletin hau.

El Ayuntamiento pondrá en marcha nuevos canales de comunicación para informar de lo que hace, entre ellos este boletín que llegará en papel a todos los hogares.

## SARE SOZIALAK

- Web orria: [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus)
- Facebook: [@lakuntzakoudala](#)
- Instagram: [@lakuntzakoudala \(BERRIA!\)](#)



JARRAI GAITZAZU!

